



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
123. zka 2. etapa GR-283	Brinkola-Arantzazu 2017-4-/15/16

Adiskide mendizaleok:

“Idiazabalgo Gazta” ibilbidearen bigarren etapa. Brinkola auzotik irtengo gara, handik gutxira Barrendiolako urtegira iristeko. Honen eraikuntza 1981eko abenduaren 31n amaitu zen. Gehienez 1.500.000 m³-ko edukiera du, 3.800 km²-ko arro-azalera eta 26.000 gipuzkoarrei ematen die zerbitzu. Arratola (735m) mendiaren hegaletik, gorantz joango gara bide-gurutze garrantzitsu bateraino.

Gero, Udanako mendatetik datorren bidezidorra elkartuko zaigu eta handik aurrera etengabe gora egingo dugu pixkanaka gaintzeko aurrean daukagun desnibela, zehatz esanda, Aizkorri mendiaren “haitz-horma”. Eta gure bideak Biozkorna mendi-leporaino eramango gaitu, Arriurdi (eskuinean) eta Artzanburu (ezkerrean) gailurren artean. Eguraldiak laguntzen badigu, ikuspegiak ikaragarriak dira eta leku honetaz gozatzeko aukera izango da.

Gero beheranzko bidea gure helmugarantz, hotz, Arantzazuko basilika ospetsu eta ezaguna, bertan hainbat aldiz izanak garelarik zenbait ibilaldiren ondorioz. 1950ean hasi ziren eraikitzen oraingo basilika, 1955ean liturgiarako ireki eta 1969an sagaratu zuten; XX. mendeko artearen elkargune gisa nabarmentzen da Arantzazuko eraikina. Antzinako elizaren gainean eraiki zen; hura XIX. mendean eraikitakoa zen, 1834ko suteak suntsitu ondoren.

Proiektuan Madrilgo Sáenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek esku hartu zuten. Haiekin batera lanean aritu ziren Jorge Oteiza fatxada nagusian, Lucio Muñoz margolaria absidearen dekorazioan, Eduardo Chillida eskultorea sarrerako ate nagusietan, frai Javier María Álvarez de Eulate beirateak egiten eta Nestor Basterretxea margolaria kriptako paretan dekoraziorako.

Kanpandorreak 44 metroko goratasuna du eta gainean altzairuzko 6 metroko gurutzera du. Alboetako dorreek, apalagoak, harrizko fatxada leuna inguratzen dute, hor zabaltzen direlarik Eduardo Chillidaren burdinazko ate handiak. Jende asko hartzeko pentsatua dago. Basilika honek 66 m-ko luzera du, 20 m-ko zabalera nabean, 33 m gurutzaduretako besoetan, eta 20 m-ko altuera 1200 m²-ko azalerarekin. Sonoritatea paregabea du, baita argitasuna eta ikusgaitasuna ere.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Brinkola-Arantzazu

Beharrezko denbora	4,40 ordu
Goranzko desnibel metatua	757 metro
Beheranzko desnibel metatua	501 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	11.620 metro
 Ingurua 1  Orientazioa 1  Joan-etorria 1  Esfortzua 3	

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geralekua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus geralekua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:50 (Bilbo plaza) eta 08:00 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	08:00 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2017-4-13ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

